

23/2022 EBAZPENA, otsailaren 07koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Arabako Osasun Mentaleko Sareko Salburuako Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko burua hauatatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen duena.

AURREKARIAK

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen azaroaren 15eko 248/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Arabako Osasun Mentaleko Sareko Salburuako Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko urtarrilaren 5eko EHAA 5. zk. eta 2022ko urtarrilaren 15eko BOE 13. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko otsailaren 4an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaituta, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko. Gainera, 10 egun balioduneko epea ezarriko du, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko administrazio-bidean.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Arabako Osasun Mentaleko Sareko Salburuako Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkez dakioko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Zuzendaritza Gerentziari, 10 egun balioduneko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-gasteiz, 2022ko otsailaren 07



Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea
MIREN EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE

I ERANSKINA

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO SALBURUAKO OSASUN MENTALEKO ZENTROKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- JUAN MANUEL JIMENEZ LERMA
- JUAN ANTONIO DEL POZO IRRIBARRIA

Baztertuak:

- Inor ez

